

**M8AN EUSKAL HERRIAN, EMAKUMEOK PLANTO**

# **POLITIKA FEMINISTAREN GARAIA DA!**

---

SORTUK bat egiten du Euskal Herriko Mugimendu Feministak Martxoaren 8rako egin duen greba deialdiarekin. Eta bide batez, baliatu nahi dugu Politika Feministaren garaia dela ozenki aldarrikatzeko.

XXI. mendeko iraultzak emakumeon eta herrion izena du. Lurraldea behar da bizitza erdigunean jarriko duen antolamendu ekonomiko eta politikoa gauzatzeko. Era berean, burujabetza eta boterea behar dira lurralde honetan bizi den komunitateak trantsizio feminista gara dezan. Feminismoa behar da, bizitzak erdigunean kokatu eta justizia soziala gauza dadin.

Feminismoaren eta askatasunaren kontrako ofentsiba mundu zabalean indartzen ari den honetan, Euskal Herria aukera bilakatzen da. Emakume sektore zabal baten aktibazioaren eta feminismoaren hedapen historiko baten aurrean gaude. Euskal jendartearen gehiengoak emakumeok pairatzen dugun biolentzia eta diskriminazioei erabateko ukoa agertzen die. Euskal lurraldeetako instituzioetan aldaketa politiko eta sozialaren aldeko indar-harreman berriak daude, gehiengo sindikal abertzale eta konprometitua dago eta jendarte antolatua dinamikoa.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak eskatu du Itun Sozial berria eraikitzea. Inoizko baldintza soziopolitiko egokienak ditugu demokrazia eta emantzipazioan urratsak emateko, feminismoa ardatz duen jendarte baterantz ibilbidea hausnartu, adostu eta jorratzeko. Feministok aukera hau baliatu behar dugu, politika feministak zentroan ezarriz, emakumeek beren etorkizuna libreki erabaki dezaten bideak eskainiz.

Emantzipazio-borroken historian ezagunak dira aurrera eta atzera urratsak, lortutako espazioak eta galdutako eskubideak. Ofentsiba neoliberalak inboluzioa ekarri du, pobrezia eta babesgabetasuna biderkatu, esparru publikoa murriztu... Hortaz, galtzen ari garenaren defentsa soilean baino, eredu berri baten eraikuntzan kokatu behar dugu. Krisiari aurre

egiteak urgentzia du eta urgentzia hori aukera bilakatu behar da Euskal Herri hobea lortzeko, emantzipazioan urratsak emateko.

Martxoaren 8a feminismoa politikaren erdigunean eta politika feministari beharrezko ahalduntzea emateko ibilbidean hitzordu bat da. Euskal Herriko Mugimendu Feministak Euskal Herrian dagoen sentsibilitateari mobilizazio bidea eskaini eta euskal jendartearen politizazioan lagunduko du berriz ere.

Ezkerreko independentiston erroka ez da M8ra mugatzen, harago joanda, M8ak Feminismoa euskal agenda politiko, ekonomiko eta sozialean kokatzeko bidea izan behar du. Politika Feministaren garaia da!

**SORTU**  
**2019-03-04**

**EL 8 DE MARZO, LAS MUJERES NOS PLANTAMOS**

# **ES EL TIEMPO DE LA POLÍTICA FEMINISTA**

---

SORTU se adhiere a la huelga convocada por el Movimiento Feminista de Euskal Herria para este 8 de marzo. A través de la misma, queremos reclamar alto y claro que ha llegado la hora de la política feminista.

La revolución del siglo XXI tiene nombre de mujeres y pueblos. Es necesario un territorio para obtener una organización económica y política que ponga la vida en el centro de todo. Asimismo, también son necesarias la soberanía y el poder para que la comunidad que vive en este territorio desarrolle una transición feminista. Sí, el feminismo es necesario para situar a las vidas en el centro y poder desarrollar una justicia social.

En este momento en el que a nivel mundial coge fuerza una ofensiva contraria al feminismo y a la libertad, Euskal Herria se convierte en una oportunidad. Nos encontramos ante una activación de un amplio sector de mujeres y la expansión histórica del feminismo. La mayoría social vasca rechaza rotundamente la violencia y la discriminación que padecemos las mujeres. De hecho, se han conformado nuevas relaciones de fuerzas en las diferentes instituciones de los territorios vascos, favorables al cambio político y social; existe una mayoría sindical abertzale y comprometida; además, tenemos una sociedad dinámica y organizada.

El Movimiento Feminista de Euskal Herria demanda un nuevo Pacto Social. Y es que tenemos unas condiciones socio-políticas más adecuadas que nunca antes para avanzar en materia de democracia y emancipación, y también para debatir, acordar y elaborar un tránsito hacia una sociedad que gire en torno al feminismo. Las feministas debemos aprovechar esta oportunidad para, poniendo las políticas feministas en el centro, ofrecer una vía para que las mujeres puedan decidir libremente su futuro.

En la historia de las luchas de emancipación se han producido avances y retrocesos; se han ganado espacios y se han perdido derechos. La ofensiva neoliberal ha supuesto una involución, ha agudizado la pobreza, el desamparo... Por tanto, debemos hacer hincapié

no sólo en la defensa de aquello que hemos perdido, sino sobre todo en la construcción de un nuevo sistema. Urge hacer frente a la crisis. Tenemos que convertir esa urgencia en oportunidad para lograr una Euskal Herria mejor, para avanzar en la emancipación.

El 8 de marzo es una cita que ayuda a situar el feminismo en centro de la política y a dotar del necesario empoderamiento al movimiento feminista. El Movimiento Feminista de Euskal Herria ofrecerá pues una vía de movilización para la sensibilidad existente en el país y contribuirá una vez más a la politización de la sociedad vasca.

Así, el reto de las personas independentistas de izquierdas no se limita sólo al 8M. Va más allá: el 8M ha de servir para situar el feminismo en el centro de la agenda política económica y social. Es la hora de la política feminista.

**SORTU**  
**04-03-2019-**